



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Arretako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2025eko Otsaila

EAE-KO HELDUEN ETA HAURREN 2025EKO TXERTAKETA-EGUTEGI BERRIA

- Aldaketak helduen eta haurren txertaketa-egutegian 2025erako: errotabirusa, VNC15 eta VNC20.

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

AEMPS-EK EKINTZA AZKARREKO GIZA INTSULINAK ERABILTZEKO GOMENDIOAK EMAN DITU

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

ALDAKETAK PRESBIDEN

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA

- Medikamentuen hornidurarik ezarekin lotutako akatsen prebentzioa.

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

2025EAN SAIHESTU BEHARREKO MEDIKAMENTUEN ZERRENDIA (*Revue Prescrire*).

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- i-botika: Medikamentuak bizitza osorako?
- Infartu-kodea eguneratzea
- SEFAPen infografia berriak: Badakizu antiseptikoak segurtasunez erabiltzen?
- 2 motako diabetesa duten pertsonen bihotz-gutxiegitasuna tratatzeko Red-GDPS fundazioaren algoritmoa eguneratzea

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA – BERREZARPENAK

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

ALDAKETAK LEHEN MAILAKO ARRETA KO ZENTROETAKO SENDAGAIEN KATALOGOAN

8

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

EAE-KO HELDUEN ETA HAURREN 2025EKO TXERTAKETA-EGUTEGI BERRIA

Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzak 2025ean txertaketa-egutegian izango diren aldaketen berri eman du, [txertaketa- eta immunizazio-egutegia eguneratzeko informazio-oharraren bidez](#). Ohar horretan, honako aldaketa hauek zehazten dira:

Aldaketak haurren txertaketan

Errotabirusaren aurkako txertoa

Errotabirusaren aurkako txertoa sartu da egutegian, txertoaren hiru dosirekin, haurrak 2, 4 eta 6 hilabete dituenean emateko. Txerto berri hori 2025eko urtariletik aurrera jaiotako haurrei eta haur goiztiarrei (32 aste baino lehenago jaiotakoak) jarriko zaie.

Pneumokokoaren aurkako txerto konjugatua (VNC15)

VNC13 txertoa VNC15 txertoak ordeztuko du, eta haurrak 2, 4 eta 11 hilabete dituenean emango dira dosiak. VNC15 txerto berria 2025eko urtariletik aurrera jarriko zaie 2025etik aurrera jaiotako haurrei eta 2024an jaiotako VNC13arekin hasitako txertaketa osatu behar dutenei.

Pneumokokoaren aurkako txerto konjugatua (VNC20) arrisku-taldeetan

VNC13 eta VNP23 txertoen pautak sekuentzialaren ordeztuko dira VNC20 txertoa jarriko da, eta ematen hasteko adinaren arabera izango da pautak.

Aldaketak helduen txertaketan

Pneumokokoaren aurkako txertoa

Pneumokokoaren aurkako txertoa gomendatuta egongo da helduentzat, lehentasun-hurrenkera honi jarraituz:

- **Arrisku handiko egoera jakin batzuk dituzten pazienteetan** (immunosupresioa, asplenia eta abar), pazienteak aktiboki erakartzea gomendatzen da. VNC20 txertoa aginduko da VNC13 + VNP23 txertoen pautak sekuentzialaren ordeztuko.
- **Zenbait arrisku-egoera kroniko** (giltzurruneko gaixotasun kronikoa, gibeletako gaixotasun kronikoa, diabetesa eta abar) dituzten pertsonen txertaketa oportunitate gomendatzen da. VNC20 txertoa aginduko da VNP23 txertoaren ordeztuko.
- 65 urte edo gehiagoko pertsonetan, pneumokokoaren aurkako VNP23 txertoaren ordeztuko VNC20 txertoa jarriko da. Txertoa pixkanaka ordeztuko da, **eta 75 urte edo gehiago dituzten pertsonak lehenetsiko dira**, arrisku faktore bakarra adina izanik. Txertaketa oportunitate gomendatzen da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, dokumentu hauek kontsultatu daitezke:

- Osasun Sailaren webgunea, haurren txertaketa-egutegia: [esteka](#)
- Osasun Sailaren webgunea, helduen txertaketa-egutegia: [esteka](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

AEMPS-EK EKINTZA AZKARREKO GIZA INTSULINAK ERABILTZEKO GOMENDIOAK EMAN DITU

Intsulina azkarren hornidura-arazoak direla eta, AEMPSek, diabetesaren tratamenduan parte hartzen duten elkarte zientifikoekin lankidetzan, gomendio hauek egin ditu haren erabilerari buruz:

- Bigarren belaunaldiko **fast aspart** analogoak (“ultralasterrak”) I motako diabetesa duten haurren eta helduen tratamendurako **lehenetsia** proposatzen da, baita beste tratamendurik jaso ezin duten banakako kasuetan ere, mediku arduradunaren irizpidea aintzat hartuta.
- Ekintza azkarreko intsulinak behar dituzten gainerako paziente diabetikoentzat lehenengo belaunaldiko intsulinen analogoak (asparta, glulisina eta lispro) erabiltzea gomendatzen da.
- Gainera, kontuan har liteke, **ordezko aukera gisa**, giza intsulina erabiltzeko aukera, behar izanez gero, osasun-zentroetan emateko bereziki.

Tratamenduan egiten den aldaketa oro zorrotz monitorizatu behar du tratamendua agindu duen medikuak, eta egin beharreko doikuntzak egin behar dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ohar osoa ikus daiteke [esteka](#) honetan.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

ALDAKETAK PRESIDEN

Fezolinetanta (Veoza®): jakinarazpen berria Presiden

Jakinarazpen bat sortu da Presiden, eta bertan adierazten da medikamentu horrek eragin dezakeen gibeletako kalteari buruz AEMPSek egin duen jakinarazpena. Hauek dira jakinarazpenak:

HASIERA:

 **Produktu edo DOE oharrak**

 Gibel-funtzioaren probak egitea fezolinetant tratamendua hasi aurretik. Funtzio hepatoikaren hileroko probak egitea tratamenduaren lehen hiru hilabeteetan, eta, ondoren, irizpide klinikoaren arabera.

 [aemps oharra: gibelko kalteak prebenitzeko gomendio berriak](#)

BISTARATZEA/LUZAPENA/ALDAKETA:

 **Produktu edo DOE oharrak**

 Fezolinetant bidezko gibelko kaltearen kasuak jakinarazi dira. Gibelko funtzioa kontrolatzeko gomendio berriak ezarri dituzte.

 [aemps oharra: gibelko kalteak prebenitzeko gomendio berriak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4

MEDIKAMENTUEN HORNIDURARIK EZAREKIN LOTUTAKO AKATSEN PREBENTZIOA

Medikamentuen Erabilera Segururako Institutuak (Espainiako ISMP), bere azken [buletinean](#), Pazientearen segurtasunaren gaineko jakinarazpen- eta ikaskuntza-sistemari (SiNASP) eta Espainiako ISMPren Medikazio Akatsak Jakinarazteko Sistemari jakinarazitako zenbait gertakari jasotzen ditu, zeinek ospitale-eremuan hornidurarik gabeko egoeretan gertatzen diren akatsak erakusten baitituzte, eta gisa horretako akatsak saihesteko gomendioak eta neurriak iradokitzen dituzte, lehen mailako arretan ere aplikatu daitezkeenak. Neurri horiek oinarri hauek dituzte:

- Hornidurarik eza kudeatzeko prozedura normalizatu bat izatea zentroan.
- Egoerari aurrea hartzea eta zer medikamentu sartu behar diren aztertzea.
- Diziiplina anitzeko taldeak osatzea medikamentu baten ordeztu beste tratamendu-aukera terapeutiko batzuk erabili behar direnean edo medikamentuaren erabilera murriztu behar denean.
- Egoeraren berri ematea medikamentu hori erabiltzen zuten osasun-profesional guztiei.
- Hornidurarik ezarekin lotuta gertatzen diren akatsei jarraipena egitea eta akats horiek errepikatzea saihesteko neurriak hartzea.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5

2025EAN SAIHESTU BEHARREKO MEDIKAMENTUEN ZERREDA (*Revue Prescrire*)

Aurreko urteetan bezala, *Revue Prescrire* aldizkari frantsesak 2025ean saiestu behar diren medikamentuen zerrenda argitaratu du, eta bertan jasotzen dira Frantzia eta Europar Batasunean baimendu diren erabileretan arriskuaren eta onuraren arteko erlazioa onugarria ez duten medikamentuak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, [esteka](#) honetan ikus daiteke txostena.

Grup del Medicament taldeak [sarrera](#) bat eskaini dio blogean *Prescrire* aldizkariako 2025eko zerrendako azken aldaketan berrikuspenari.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

i-botika: Medikamentuak bizitza osorako?

Herritarren informaziorako i-botikaren fitxa berri bat argitaratu da, tratamenduak aldian-aldian berrikusteko premiari buruzkoa. Tratamendu bat kentzeak edo doitzeak zure bizi-kalitatea hobetu dezake, behar ez diren medikamentuak saihestearen ondorioz.

Esteka honetan ikus daiteke fitxa.

Infartu-kodea eguneratzea

ST-SCACEST segmentuaren igoera eragiten duen MIaren tratamendurako EAEko protokoloaren 3. edizioa argitaratu da. Protokolo horren helburua asistentzia-sareak zer baldintzatan jardun behar duen zehaztea da, morbmortalitatea murrizteko eta SCACEST duten pazienteen bizi-itxaropena hobetzeko.

Protokoloa eta laguntza-materiala [intranet korporatiboan](#) daude.

SEFAPen infografia berriak

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Sozietateak (SEFAP) infografia berria argitaratu du: **Badakizu antiseptikoak segurtasunez erabiltzen?**


Pdf formatu interaktiboa

Aurkezpen interaktiboaren formatua

SEFAPen infografia horiek eta beste batzuk [web-orrian](#) ikus daitezke.

2 motako diabetesa duten pertsonen bihotz-gutxiegitasuna tratatzeko Red-GDPS fundazioaren algoritmoaren eguneraketa

GDPS sarean 2 motako diabetesa duten pertsonetan bihotz-gutxiegitasuna tratatzeko [algoritmo berriak](#) ebidentzian oinarritzen diren gaur egungo gomendioak biltzen ditu, eta ebidentziaren koloreak egoera klinikoetan txertatzen ditu: berdea (I. ebidentzia-maila), horia (Ia), laranja (IIb) eta gorria (III-saihestu).



Goiko erdian, KOMORBILITATEA atala hazi egin da OBESITATEAREN “gaztatxo” berri batekin. Beheko erdiak eiekzio-frakzioa murriztua edo pixka bat murriztua duen bihotz-gutxiegitasuna jorratzen du, aurrekoaren antzera, baina beste ebidentzia-maila batekin.

Gabapentinaren eta pregabalinaren indikazioz kanpoko erabileraren berrikuspena

Gabapentinoideen indikazioz kanpoko erabilerari buruzko [berrikuspen-artikulu](#) interesgarria, **THE OREGON STATE DRUG REVIEW** aldizkarian argitaratua Ohioko Estatuko Unibertsitateko Farmazia Fakultatearen zigiluarekin.

Table 2: Off-Label Uses of Gabapentinoids.

Gabapentin	Pregabalin
Compendia* supported off-label uses	
- Alcohol dependence - Diabetic peripheral neuropathy - Postoperative pain - Uremia pruritus - Vasomotor symptoms	- Generalized anxiety disorder - Postoperative pain - Restless leg syndrome** - Social anxiety disorder - Uremia pruritus
Off-label uses with insufficient or very low-quality evidence	
- Cancer related neuropathy - Fibromyalgia** - Generalized anxiety disorder - Neuropathic pain related to spinal cord injury - Panic disorder - Refractory cough - Social anxiety disorder - Trigeminal neuralgia	- Cancer-associated neuropathy - Familial dysautonomia - Obsessive-compulsive disorder - Panic disorder - Refractory cough - Ureteral stent symptoms - Vasomotor symptoms
Off-label uses with evidence of no benefit	
- HIV neuropathy - Back pain - Migraine prophylaxis	- HIV neuropathy - Back pain

*Compendia supported uses are supported by Micromedex with Level A or B evidence
**Unfunded Conditions on the Oregon Health Plan prioritized list of health services

Gainerako aldizkariak helbide honetan eskuratu daitezke: [sakatu hemen](#).

Horren harira, 2014an [INFAC](#) buletin bat argitaratu zen, “Gabapentina y pregabalina: entre el uso y el abuso” izenburuarekin, eta 2020an [Sendagaia](#) zentzuz erabiltzeko gomendio bat “Nola erabili gabapentina eta pregabalina min kronikoa tratatzeko”.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7 MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA –BERREZARPENAK


Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Benzafibrato, clotrimazol, lanreotida, rifampicina, oxibutina, eta fluticasona propionato.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Cefuroxima, desfesoterodina, glucagón, calcipotriol, tiotropio bromuro eta ganciclovir.

PRESBIDEN “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dagoela gogorarazten da, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornikuntza-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- PRESBIDE: [Medikamentuen Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [Hornidura-arazoak dituzten medikamentuen zerrendarako sarbidea](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Aldaketa hauek egin dira katalogo honetan: [LEHEN MAILAKO ARRETA KO ZENTROETA N ERABILTZEKO ESKURAGARRI DAUDEN SENDAGAI AK](#):

- **Trangorex 150mg** anpoilak (KN: 605846): hornidurarik gabeko sendagaia.

Hornidurarik eza dela eta, **CORDARONE 150mg/3 ml** atzerriko aurkezpena hornitzen ari da soluzio injektagarria (KN: 683680). Biltegiko izakinen iraungitze-data 6 hilabetetik beherakoa da (04-2025). Garrantzitsua da datu hori kontuan hartzea eskaera-kopuruak zehazteko.

- **ZBko Parazetamola**: 2024ko azarotik, eta Osakidetzak egindako erosketa zentralizatuaren ondorioz, biltegian eskuragarri dagoen aurkezpena **SUPOFEN da (KN: 607696)**, Kontseilutik eskatzeko orduan deskribapen berri horren bidez agertuko da.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABAko ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.



Argitalpen honen edukia Osakidetzako Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez